



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A
Lehen Mailako Arretako Farmazia
e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2026ko Urtarrila	
AEMPS: SEGURTASUN OHARRA Zain barneko azido tranexamikoa	1 Jarraitu irakurtzen
BERRITASUNAK PRESIDEN - Atzerriko medikamentuak - Finantzatu gabeko gisa preskribatu daitezkeen bisa-medikamentuak	2 Jarraitu irakurtzen
TXERTAKETAKO BERRITASUNAK	3 Jarraitu irakurtzen
ARGITALPEN INTERESGARRIAK - INFAC - iBotika - SEFAP infografia - Min kroniko ez-onkologikoan (MKEO) opioideen erabilera optimizatzeko plan nazionala	4 Jarraitu irakurtzen
HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN	5 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA – BERREZARPENAK	6 Jarraitu irakurtzen

1	AEMPS: SEGURTASUN-OHARRAK
Zain barneko azido tranexamikoa: kontrako erreakzio larriak, hilgarriak barne, istripuzko administrazio intratekalengatik Istripuzko administrazio intratekalarekin lotutako kontrako erreakzio larriak jakinarazi dira, hilgarriak barne, batez ere anestesiko lokal injehtagarriekin izandako nahasketen ondorioz. Horregatik, azido tranexamikoa duten medikamentuak merkaturatzeko baimenaren titularrek, EMArekin eta AEMPSekin batera, segurtasun-gutun bat egin dute osasun-langileentzat. Laburbilduz: Azido tranexamikoaren formulazio injehtagarria zain barnetik <u>soilik</u> eman daiteke. Kontraindikatura dago bide intratekaletik, epiduraletik, bentrikulu barnetik eta garun barnetik erabiltzea.	

- Azido tranexamikoaren zain barneko formulazioak biltegiatzean, manipulatzeko eta ematean kontu handiz ibili behar da, emateko bidea egokia dela bermatzeko. Besteak beste, argi eta garbi identifikatu behar dira azido tranexamikoa zain barnetik soilik emateko diren xiringak, eta azido tranexamikoaren injektagarriak anestesiko lokal injektagarrietatik bereizita biltegiatu behar dira.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2 BERRITASUNAK PRESIDEN

Atzerriko medikamentuak:

2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, e-rezetan (errezeta elektronikoa) eskuragarri dauden atzerriko medikamentuak, elektronikoki dispentzatu ahal izango dira, eta, beraz, preskripzio horien atxikimendu-datuak eta abar eskuragarri egongo dira.

Finantzatu gabeko gisa preskribatu daitezkeen bisa-medikamentuak:

Finantzatu gabeko indikazioetarako preskribatu daitezkeen bisa-medikamentuen zerrenda eguneratu da (bisa aukera desaktibatuz). Zerrendan **ONDANSETRONA** eta **DULAGLUTIDA** sartu dira.

[Finantzatu gabeko indikazioetarako bisa-medikamentuen zerrenda.pdf](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3 TXERTAKETAKO BERRITASUNAK

Euskadiko 2026ko txertaketa-egutegian aurreikusitako aldaketak:

Osasun Sailak honako eguneratze hauek egin ditu Euskadiko txertaketa- eta immunizazio-programetan:

- **Haurren txertaketa-egutegiko 2026ko aldaketak**
 - **A, C, W-135 eta Y serotaldeetarako txerto antimeningokoziko tetrabalente konjugatua**
 - **Difteriaren-Tetanosaren-kukutxeztul azelularraren aurkako txerto konbinatua, antigeno gutxirekin (dTpa)**
- **Helduen txertaketa-egutegiko 2026ko aldaketak**
 - **Arnas birus sintzitalaren (ABS) kontrako txertoa.** Honako arrisku-talde hauen txertaketa sartu da:
 - ✓ Birika-transplantea izan duten pertsonak (transplantetik denbora-mugarik gabe)
 - ✓ Aurreko bi urteetan zelula ama hematopoietikoen transplantea (TPH) edo CAR-T terapia jaso duten pertsonak, tratamendua edo transplantea jaso eta 6 hilabetetik aurrera.
 - **Zoster herpesaren (ZH) aurkako txertoa**
 - **20 pneumokokoaren kontrako txertoa (VCN20)**

[Euskadiko 2026ko txertaketa-egutegiaren](#) eguneratzeak ikusteko esteka erantsi da.

[ABS oharra helduak](#)

[Osasun Sailaren informazioa helduei ABSaren aurkako txertoa emateari buruz](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

INFAC berria: Helduen gernu-infekzioaren tratamenduaren eguneratzea

Bakterioek antibiotikoekiko gero eta erresistentzia handiagoa dute, eta mundu mailan ari zaio heltzen arazo horri.

INFAC buletin honen helburua da helduen gernu-infekzioen tratamendu antibiotikoa eguneratzea erkidego mailan.

INFAC

i-botika berria

Herritarrei zuzendutako i-botika fitxa berri bat argitaratu da:

"Zure osasun-txartelarekin, zure errezetak lagunduko dizkizute"

Webgunean eskuragarri dituzue gainerako [fitxak](#). Gainera, [bideoak](#) ere argitaratu dira, eta [esteka erabilgarriak](#) eta [i-botika hiztegia](#) ere eskuragarri daude.



SEFAP infografia, antibiotikoekiko alergiei buruz

Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Sozietateak (SEFAP) bere 43.

infografia argitaratu du, pazienteei eta herritarrei zuzenduta: **Ba al dakizu zer den antibiotikoekiko alergia?** Infografia honen bidez azaltzen da nolako erreakzioak iradoki ditzakeen benetako alergia batek, noiz hitz egin behar den osasun-langile batekin eta zein egoeratan bilatu behar den premiazko arreta, bereziki alarma-seinale larriak daudenean, hala nola aurpegia handitzen bada edo arnasa hartzeko zailtasuna badago. Helburua da tratamenduen segurtasuna hobetzea, alergia-etiketa desegokiak saihestea eta osasunari buruzko erabaki informatuak hartzen laguntzea.

Infografía

Min kroniko ez-onkologikoan (MKEO) opioideen erabilera optimizatzeko plan nazionala

Osasun Ministerioak egindako [osasun-langileentzako laguntza-dokumentua](#) aurkeztzen da. Bertan, hainbat algoritmo jasotzen dira MKEOan opioideen erabilera zehazteko, bai eta farmako horiek hobeto erabiltzeko eranskinak ere.

[Plan](#) honen helburu nagusia da min kroniko ez-onkologikoan opioideak erabiltzeko prozesuan hobetu beharreko puntuak identifikatzea eta, adostasunez, Osasun Sistema Nazionalean medikamentu horien erabilera optimizatzeko beharrezkoak diren jarduera-ildoak ezartzea, zeharkako ikuspegi holistiko batetik.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5

HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

Hauet dira urtarrilako berritasunak:

2026 urtarrila		
		Berritasunik gabe

2020ko urtarritetik aurrerako berrikuntzak biltzen dituen [dokumenturako esteka](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- **Solu-moderin®** (metilprednisolona) 125 mg bial 1
- **Tamiflu®** eta **ebilmufin EFG** (oseltamivir) 75 mg 10 kapsula
- **Trileptal®** (oxkarbazepina) 60 mg/ml ahobidezko suspentsioa, 250 ml-ko potea
- **Wartec®** (podofilotoxina) 1,5 mg/g krema, 5 g-ko hodia

- **Ácido valproico aurovitas EFG** 300 mg 100 askapen luzeko konprimituak
- **Nustendi®** (Bempedoiko azidoa /ezetimiba) 180 mg/10 mg 28 konprimituak

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- **Meriofert kit®** (menotropina) 75 UI soluzio injektagarria, bial 1
- **Nemactil®** (periziazina) 10 mg, konprimituak
- **Escitalopram Viso** 5 mg EFG, 28 pelikula estalia duten konprimituak
- **Adisocol®** (ursodeoxikolika azidoa) 150 y 450 mg, 60 konprimituak
- **Pulmicort®** (budesonida) 0,25 mg/ml lainoztagailu bidez inhalatzeko suspentsioa, 2 ml-ko 5 anpulu
- **Androcur®** (ziproterona) 50 mg, 50 konprimituak
- **Tresiba®** (Degludec intsulina) 200 UI/ml FLEXTOUCH, 3 ml-ko 3 luma aurrekargatuak
- **Itragerm®** (itrakonazola) 50 mg, 7 kapsula gogor
- **Lacerol®** eta **Trumsal®** (diltiazem) RETARD 180 mg, askapen luzeko kapsulak
- **Fluticasona Cipla** (flutikasona propionatoa) 250 mcg/inhalazio, 120 pultsaziodun inhalagailua
- **Flusolan®** (flutikasona propionatoa) ACCUHALER 500 mcg, inhalagailua 60 dosi
- **Proviron®** (mesterolona) 25 mg, 30 konprimatu
- **Mizolen®** (mizolastina) 10 mg, liberazio aldatuko 20 konprimatu
- **Premax®** (pregabalina) EFG 20 mg/ml ahobidezko soluzioa
- **Semonic®** (sertralina) 200 mg, 30 konprimitu

PRESBIDEn “Hornidura-gabezia” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- Presbiden: [Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuen hornidura arazoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.

Iradokizunak edo iruzkinak egiteko, bidali posta elektronikoa helbide honetara:

ARABAKO ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da. FarmaHitzak buletinak Osakidetza intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez. Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da.